

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko maiatzaren 9a. IX. urtea. 2.591. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Greba orokorraren arrazoiak azaldu dituzte

Tolosaldeko LAB eta ELA sindikatuek Gutun Sozial berri baten beharra aldarrikatu dute ◯3

Alurr dantza taldeak ikuskizun berria, prest

Euskara, dantza eta kantua batu ditu 'Uztartuz' emanaldiak; hilaren 18an taularatuko dute ◯5

Toni Lodeiro

Kontsumo arduratsuan aditua

«Gertuko produktuak kontsumitu behar dira»

Aiztondo Denbora Bankuak antolatuta hitzaldia emango du, bihar, Asteasun

Elkarrizketa ◯4

Frantziak atxiloaldia luzatu dio Andoni Goikoetxeari

Epailearen aurretik pasa bitarte, elkarretaratzeak eta batzar informatiboak egingo dituzte Gaztelun ◯6



ITZEAURRIZU

→ **Oinezkoen irisgarritasuna.** Tolosako Udalak 80.000 euro bideratuko ditu oinezkoen irisgarritasun planera. Egunotan, hainbat eragile eta herritarrekin batera, pausoz pauso zeharkatu dituzte herriko espaloi, koska, zebra bide eta errepide zatiak. Honela, udalak, herriko puntu gorrienak identifikatu ditu. ◯2



Zain dituzu Euskaltelen dendan, pilotak sinatzeko

Martínez de Irujo eta Olaizola II zain izango dituzu Tolosako Euskaltelen dendan (San Frantzisko, 19), maiatzaren 9an, 19:00etatik 20:00etara, pilotak sinatzeko.

logikaline
San Frantzisko, 19



Banatzailerik ofiziala

Tolosako Udalak 80.000 euro bideratuko ditu, oinezkoen irisgarritasun planera. Egunotan, hainbat eragile eta herritarrekin batera pausoz pauso aritu dira, herriko bideen diagnosia osatzen.

Oinezko bideei begirada zorrotza

Iteza Urkizu

Egunero, milaka pertsonak oinez zapaltzen dituzte Tolosako espaloi, koska, zebra bide naiz errepide zatiak. Badira, ordea, oinez ibili ezin, eta esaterako, gurpildun aulkia ezinbesteko garrabide duten herritarrek; edo ikusten ez dutelako, makilaren laguntzaz ibiltzen diren herritarrek; edo seme-alaben aulkixoari bultzaz kale hauek zapaltzen dituztenak. Gisa honetako tolosarrei, zein edozein tolosarri begira, oinezko bideen irisgarritasun plana gauzatzeko lanetan ari da udala, eta herritar nahiz eragileekin batera identifikatu dituzte, egunotan, herriko puntu gorrienak.

Pasa den astean izan zen, parte hartze prozesuko lehen saioa; kultur etxean elkartu ziren izena emandako herritar, talde eta udal teknikariak, eta besteak beste, proiektuaren aurkezpenarako balio izan zuen bilkurak. Prozesuan parte hartu duten talde edo kolektiboak, honakoak dira: Goienetxe-Gureak, Hirukide ikastetxea, Samaniego ikastetxea, Asmelegi, Altzoan, Once fundazioa, Esklerosi Anozkoitzaren elkarte eta Iturriza elkarte.

Udalaren helbururik behinena, hiriguneko oinezkoen bideak, eta oro har, irisgarritasun baldintzak, hobetzea da; udalak «ezinbestekotzat» jo du, horretarako, herritarren parte hartzea.

Eronka espaloiei

Pasa den astelehen eta asteartearen izan ziren, herriko irisgarritasun arazorik nabarmenenak dituzten puntuak identifikatzeko egunak.

Parte hartze prozesuko kideak bi taldetan banatu ziren, eta 17:30etik aurrera, bi ibilbide egin zituzten, oinezko bideen diagnosia osatzeko aldera. Aipatzekoa da, oztopo eta traba arkitektonikoez haratago, beste hainbat faktore ere kontuan izan dituztela, diag-



Nafar Zubiko gunea, Tolosan irisgarritasun arazo nabarmenenak dituen puntua da. Pasa den asteartean aztertu zuten. I. URKIZU

nosi hori osatzerakoan; besteak beste: bidegurutzeetan ikuspegia egokia den, oinezkoen bideek jarraikortasunik ba ote duten, nahiz hiri-altzari egokiak dauden.

Astearteko saioko ibilbidea, esaterako, Nafar Zubia eta Zerkausia elkartzen diren gunean hasi zuten, Garikoitz Lekuona teknikariak eta herritarrek. Puntu gorri gisa markatu zuten, besteak beste, zubiko espaloien estutasunagatik. Gainera, hain justu zubiaren bestaldean, Tolosako gunerik arazotsuenetako bat dagoela nabarmendu zuen Lekuonak: «Bihurgunean autobusek ez dute nahikoa leku, eta oinezko bidea oso estua da, adibidez, gurpildun aulkientzako. Puntu hau nahitaz berrantolatu beharrekoa da, trafiko eta jende asko pasatzen baita hemendik».

Diagnosi guztiak, maiatzaren 13ko bileran bilduko dituzte, eta Tolosako Udalak egitasmo honi bideratutako 80.000 euroak erabiliko ditu, irisgarritasunaren alde.

Laskorain Goikoa herritarren ekarpenekin urbanizatuko dute

San Esteban izenez ere ezaguna den auzoa «egungo errealitatearen neurri» eraberritzea proposatu du udalak

I. Urkizu

Tolosako Udalak parte hartze prozesua abian jarri du, Laskorain Goikoa edo San Esteban eremua eraberritzeko bidean. Maiatzaren 14, 21 eta 29an, eta ekainaren 4an burutuko dituzte bilerak, eta izena eman beharko dute beren ekarpenak egiteko interesa dutenak.

Ibai Iriarte alkateak eta Garikoitz Lekuona hirigintza teknikariak azaldu dutenez, auzoa eraberritzeko proposamen honetan, bi galderei erantzuteko pausoak eman nahi dituzte: «Auzoak zer behar duen erabaki beharko dugu, eta bestalde, auzoak tolosa-

rrei zer eskaini behar dien ere zehaztea, garrantzitsua da».

Egungo Udala Gobernuak, aurreko legegandian San Esteban auzorako aurreikusita zegoen Plan Berezia geratzeko erabakia hartu zuen: «Eremuaren ezaugarriak, nahiz beharrak eta egungo testuinguru sozio-ekonomikoa aintzat hartuta, plana lekuz kanpo baitzegoen»

Hausnarketarako irizpideak

Udalak berak hausnarketarako lau oinarri zehaztu ditu. Lehenengo, Laskorain Goikoa eremua eretorkizuna erabakitzea ezinbestekotzat jo dute: «Ezaugarri bereziak ditu gune honek, eta orain arteko hirigintza ereduak 1.000 etxebizitza baino gehiago eraikitzea ahalbidetu nahi bazuen ere, beste parametro batzuk aintzat hartu behar dira».

Honenbestez, Tolosako Udalak orain gutxi herriko etxebizitza hutsen inguruan egindako azterketa gogora ekarri du Iriartek: «Tolosan inor erroldatu gabeko 500 etxebizitza baino gehiago daude, eta honi gehitu egin behar zaizkio Amaratzen, Larramendin, Berazubini eta Zumardihaundiko sarreran eraikiko dituzten etxebizitzak. Hori guztia kontuan hartu behar da».

Era berean, auzoak landa gune eta herrigunearan artean egonik, duen izaera berezia mantentzea

ere garrantzizkotzat jo dute: «Trenbideak ahuldade bat ekarri izan dio San Estebani, baina indargune bat ere bada, herriko erdigunetik gertu dagoen arren, oso gune lasaia baita. Trantsizio hori islatu behar du», azaldu du Ibai Iriartek.

Kontuan izan beharreko laugarren faktorea, eremuan aurrera eramane nahi duten garapen sozio ekonomikoa da: «Sorkuntza gunea da Tolosa, eta lehendik Bonberenea eta Box.a bezalako egitasmoak bertan izanda, eta laster tokiko komunikabide guztiek ere egoitza bertan izango dutela kontuan izanda, eragileen arteko sinergiak bultzatuko ditu, eta aktibo ekonomiko garrantzitsu bilakatu daiteke San Esteban».

Parte hartze prozesuan benetako interesa duten herritar, eragile eta auzotarrak bildu nahi ditu Tolosako Udalak, eta horretarako, izen ematea ireki dute. 943 65 44 66 telefonora deituta nahiz udate@tolosakoudala.net helbide elektronikora idatzita eman ahaliko da, beraz.

Guztira lau bilera egingo dituzte; maiatzaren 14, 21 eta 29an, eta ekainaren 4an. Lekua, berriz, San Estebango auzo elkartean egoitza izango da, eta 19:00etatik 21:00etara bitartean ariko dira ekarpenak eginetz, «auzoaren etorkizuna eraiki».

• tolosa@hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Auzo badauka. 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

Greba orokorra edukiz bete dute

Maiatzaren 30eko greba orokorra Gutun Sozial berriaren testuinguruan kokatu dute Tolosaldeko LABek eta ELAk

«Egoera larriaren» aurrean mobilizazioetara deitu dituzte langileak

Asier Imaz

Tolosaldeko LAB eta ELA sindikatuek greba orokorraren arrazoiak azaldu zituzten atzo, bakoi-tzak bere aldetik. Alde batetik, maiatzaren 30eko mobilizazioa girotzen jarraitu zuten, eta beste-tik, Gutun Sozial berri bat egiten hasiko direla esan zuten.

Euskal bi sindikatuek bat egin zuten instituzioetatik konponbiderik ez dela etorriko esatean, baita alternatibak egon badaudela azaltzerako unean ere. ELA sindikatuko Egoitz Iturbek, fiskalitatea izan zuen puntu honetan hizpide: «Murrizketek eta erreformez hitz egiten dutenean, Espainiako estatuak edo Europak behartutako neurriak direla entzun dugu behin baino gehiagotan. Kasu honetan, ordea, diru bilketa Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroaren eskumena da, eta hor eragin zuzena daukate hemengo agintariak».

Iturberen iritzi, Europa giratzea nahikoa izango zen sarre-rak handitzeko: «Ez dugu beste munduko ezer eskatzen, Europako batz bestekoari begiratzea besterik ez. Hori aplikatuko bagenu, Euskal Autonomia Erkidegoan 4.400 milioi euro bilduko genuke, eta Nafarroan, 2.000 milioi euro. Pentsatu diru hori gizar-tean banatuko balitz, zer gertatuko litzatekeen».

«Greba orokorra, zertarako?»

ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariak ez dira urrutira joan greba orokorraren arrazoiak azaltzerako unean, hau da, lanean eta lanik gabe dauden langileen bizi baldintzak azaldu dituzte. Oihana Lopetegui LABeko kidearen esanetan, arazoa ez da ekonomikoa, politikoa baizik: «Miseria zabaltzea eta pobrezia konde-natzea ez da derrigorrezkoa, hau-tu politikoa bat da. Eta zorritzarrez, hori da nagusitu den hautua gobernuetan, hori da nagusitzen den politika instituzioetako aurrekontuetan, behin eta berriro ikusten ari garenez. Gobernuak aldatzen dira baina politikak berdinak izaten jarraitzen dute, herriaren kontra eta herriaren kal-tetan hartzen diren erabakiak di-rela jakinik ere».

Egoitz Iturbek bide beretik jarraitu du. ELAren ordezkariaren-tzat, agintariak enpresariak ba-

karrik hartzen dituzte kontuan, «gizar-tearen gehiengoa kanpoan utziz». Argudio hori, eguneroko-tasunean kokatu du Iturbek: «Euren politikak enpresariarentzat egiten dituzte. Bankuen zuloak estali behar direla, ez dago arazo-rik; eskatzen duten guztia ematen zaie, erraztasun guztiak jarri-az. Bien bitartean, murrizketak noren bizkar erortzen dira? Ikus dezagun: Lan erreforma, pentsioen erreforma, soldata jait-siera, hezkuntzan eta osasunean murrizketak... Ongizate gizar-tea suntsitu nahi dute, eta hori da euren politika».



Gobernuak aldatzen dira, baina politikak berdinak izaten jarraitzen dute»

«Aldaketa politikoak eta sozialak egitera behartu behar ditugu prozesu sozial baten bidez»

OIHANA LOPETEGUI
LAB sindikatuko ordezkaria

«Enpresariak bakarrik hartzen dituzte kontuan, gizar-tearen gehiengoa kanpoan utziz»

«Maiatzaren 30ean alde batean eta bestean daudenak bereiztu behar ditugu»

EGOITZ ITURBE
ELA sindikatuko ordezkaria

Hego Euskal Herrian «235.000 langabetu» daudela gogoratu du ELAren ordezkariak, «eta Espai-niako estatuan 6.200.000». Datu hauek agintarien politiken ondo-riak direla esan du Iturbek, eta egiten ari direna, «ulertezina» dela gaineratu du: «Lanik gabe dauden askori laguntzak bukatu zaizkie, eta besteei, hauek murriz-tu dizkiete. Prekarietate handi batera garamatzate; txirotasun aktiboa bultzatzen dute».

Bi sindikatuetako ordezkariak ados agertu dira geldirik egoteak ezer gutxirako balio duela esate-rakoan. Oihana Lopetegik, gau-zak benetan aldatzeko dagoen bide bakarra borroka soziala sen-dotzea dela esan du: «Aldaketa politikoak eta sozialak egitera behartu behar ditugu. Aldaketa ho-



Tolosaldeko LAB eta ELA grebaren arrazoiak zehazten. Goian, LABeko ordezkariak, eta behean, ELAkoak. A.I.

riek prozesu sozial baten emaitza izango dira, bai ala bai». LABen ordezkariaren esanetan, euren prozesu hori bultzatzea erabaki dute, «horretarako ditugun tres-na indartsuenak erabiliz». Tres-na horiek bi sindikatuetako orde-zkariaren ahoan egon dira: Gu-tun Soziala eta mobilizazioak. Maiatzaren 30eko greba oroko-rra, bigarren atal horretan koka-tu dute, eta eskualdeko herritar guztiei mobilizazioarekin bat egi-teko eskatu diete.

ELAren ordezkariak, Egoitz Iturbek, egun horren garrantzia azpimarratu du: «Greba orokorra langileentzat oxigenoa da; gau-zak beste era batetara ikusten la-guntzen du. Indarra erakutsi be-har dugu. Badakigu emaitza ez dugula maiatzaren 31n ikusiko, baina alde batean eta bestean daudenak bereiztu behar ditugu. Guztioiok ez gaude onzi berean, batzuk politika batetan sinesten dute, eta besteok ez dugu horre-tan sinesten, alderantziz, alterna-tibak daudela ikusi eta aldarrika-tzen ditugu».

Aldarrikapenak zehazte alde-rra, «erreformak hemen ez aplika-tzea eta politika berriak egitea» eskatu dute sindikatuek, «gizarte babesari dagokion mailan eta ekonomia erreala suspertzeko». Horretarako, jarraitu beharreko bideak ere proposatu ditu LABek: «Politikak behingoz eta benetan aldatzea; politika propioak egite-ko eskubidea ziurtatuko digun burujabetza eskuratzea, eta poli-tikak erabakitzerakoan herrita-rron benetako parte hartzea ziur-tatzea».

Joana Mendez LABen ordezkariaren esanetan, «politikak goitik behera aldatzeko garaia da, eta erabaki hori hartzea gure esku dago. Ez dago erabaki hori har-tzea edo hau hori egitea debe-katzen duen ezer».

Gutun Sozial berria, bidean

Tolosaldeko LAB eta ELA sindi-katuetako ordezkariak Gutun So-zial berri baten beharra aldarrit-tu dute. Ideia, ordea, gauzatze bidean dagoen egitasmoa dela ar-gitu dute ondoren: «Euskal Herri-

ko eragile sozial eta sindikalen ar-tean eredu sozial berri bat eraiki-tzeko behar beharrezkoak diren adostasunak eta akordioak lortu behar ditugu. Eta hori egitera goaz. Aurreneko akordio handia Euskal Herriko Eskubide Sozia-len Gutuna izatea proposatzen dugu».

Sindikatuek, beraz, Gutun So-ziala eredu berri baten inguruan gauzatu nahi den akordioari dei-tu diote; lehen batzarra maiatze-an egingo dute, eta herritarren parte hartzea bilatu nahi dute. Horretarako, «eztabaida herrieta-raino eramango dugu, ahalik eta eragile gehien batze aldera».

Greba orokorraren arrazoiak azaltzeko, eta Gutun Sozialaren inguruan hitz egiteko, 4.000 asan-blada egingo dituztela azaldu du Egoitz Iturbek ELAren ordezkari-ak. Euskal Herrian eta maiatze-an barrena kokatu ditu bilkura horiek Iturbek: «Jendearen parte hartzea beharrezkoa da, eta lan-gileek argi izan behar dute borro-ka landu egin behar dela, alterna-tibak hor baitaude».

Maiatza Gorria jardunaldien baitan hainbat hitzaldi antolatu dira Otsabin

M. Iraola Tolosa

Pasa den urteko geldialdiaren ondoren, berriz ere antolatu du Maiatza Gorria Izaskun Auzoko Otsabi Elkarteak. 2013 honetako jardunaldietan, besteak beste, espetxea, generoa, memoria historikoa, kannabisa edota internazionalismoa jorratuko dituzte. Gaurtik hasita, hilaren 27ra bitarte, sei hitzaldi antolatu dira elkartearen bertan, guztiak 19:00etan.

↓ Egitaraua

MAIATZA GORRIA 2013

- **Maiatzak 9.** *Sormena kartzelan*, Oier Gonzalezen eskutik.
- **Maiatzak 14.** *Memoria historikoa berreskuratzeko politika publikoak*, Xabier Erauskinekin.
- **Maiatzak 16.** *Zer ulertzen dugu feminismoaz?* Hizlaria: Eider Olazar Elduaien.
- **Maiatzak 21.** *Kannabisaren kontsumo arduratsua*, Belarrak Kalamu Elkartearekin.
- **Maiatzak 23.** *Arrash* filmaren proiektzioa. Rifeko gerran espainiar ejertzitoak egindako sarraski kimikoa du hizpide. Ondoren, Javier Rada eta Tarik El Idrissi zuzendariekin solasaldia.
- **Maiatzak 27.** *Venezuela, kapitalismoa kolokan*. Gontzal Martinez de la Hidalga, Komite Internazionalistako kideak.

Toni Lodeiro ◊ 'Consumir menos, vivir mejor' liburuaren egilea

Aitzondoko Denbora Bankuak antolatuta, kontsumoa murriztu eta hobetzeko ideia praktikoak emango ditu bihar Asteasuko zinema aretoan, 19:00etan; Ideia horietako batzuk aurreratu ditu.

«Gutxiago kontsumitzea, aukera baino, limite etiko bat izan beharko litzateke»

Mikel Iraola Asteasu

Toni Lodeirok (Coruña, 1978), utopikoa dirudien arren, argi du hobeto bizitzeko, gutxiago kontsumitzean dagoela irtenbidea. Gizartearen aurkako noranzkoan doan ideia bihurtu omen da, baina nahi izanez gero, posible dela dio.

Zer egin behar du, bada, norbanako batek bere kontsumoa hobetzeko?

Tokian tokiko merkataritza sustatu eta gertuko produktuak kontsumitu behar dira. Hor bada datu oso interesgarri bat, non esaten den bertako dendetan gastatzen den euro bakoitzeko %80a eskualdean geratzen dela, eta aldiz, supermerkatu batean gastatzen dugun euro bakoitzeko, %80a kanpora doala. Gertuko merkataritzan kontsumitzeak bestelako onurak ere baditu: kalitate hobea, ontziak murriztea, kontsumitzailearengana iristeko bidean produktuak egiten dituen kilometro kopurua gutxitzea...

Eta kontsumoa murriztea lortzeko?

Nahitaezkoak ez diren beharriak geure bizitzak zein puntutara baldintzatzen dituen aztertu behar dira. Bigarren etxebizitza, auto edo luxuzko oporrez ari naiz. Askotan, ekonomikoki ito egiten



HITZA

gaituzte, eta ondorioz, nahi baino lan ordu gehiago egin, opor gutxiago gozatu, edo gure bizitzako beste hainbat proiektu nahi bezain besteko denbora ezin eskaintzera behartuta gaude. Gutxiago kontsumituz gero, denbora gehiago dut niretzat garrantzitsuak diren gauzak egin ahal izateko, eta beraz, bizi kalitatea handitzen dut.

Adibiderik ba al duzu?

Bai, auto berri bat erosi beharrean, edo munduko beste puntara bidaiatu beharrean, ahal den neurrian beste urte pare batez auto horrekin jarraitzea, edo gertuago lekuak ezagutzeko datza. Jendea ez da kontziente horrek aukerak kentzen dituela, esaterako, seme alabak zaintzeko, osasunagatik edo beste edozergatik urte sabatiko bat hartu, edo hilabete bateko oporrak izan beharrean, bi hilabeteak hartzerako garaian. **Azken batean, aurreztea da kontua?** Bai eta ez. Batzuetan aurreztu be-

harrean diruaren beste banaketa bat egiten da. Hau da, supermerkatu eskaintza bereziko produktuak erosi ordez, gertuko denbora erosten badugu, normalena gehiago ordaintzea da, baina erositakoa kalitate handiagoa eta osasuntsuagoa izango da. Azken finean, gure kontsumo gastuak, gure baloreekin bateratu behar ditugu.

Zeresan nahi duzu horrekin?

Gizartean baloreen inguruko indaiatu beharrean, ahal den neurrian beste urte pare batez auto horrekin jarraitzea, edo gertuago lekuak ezagutzeko datza. Jendea ez da kontziente horrek aukerak kentzen dituela, esaterako, seme alabak zaintzeko, osasunagatik edo beste edozergatik urte sabatiko bat hartu, edo hilabete bateko oporrak izan beharrean, bi hilabeteak hartzerako garaian.

Dena den, hori norbanako baten esku bakarrik ez dago, ezta?

Noski. Ez dago hori egitea errazten duen legedirik. Kontsumo eta

lan ohitura askoren inguruko politikak aldatu beharko lirateke, norbanakoek aldaketa horiek gauzatu ahal izateko.

Utopikoa dirudi...

Ez. Gauza ez da inor hori egitea behartzea, baizik eta hori lortu nahi dugunok baliabide eta laguntzak izatea. Baina egitea posible da behintzat. Gauza da, asko ez direla hori egitea ausartzen gizariteak beste modu batetara jotzen duelako. Badirudi, gure seme-alabekin denbora gehiago egon edo gehiago deskantsatu nahi izateagatik gutxiago kontsumitzen dugunak gizaritearen aurkako noranzkoan goazela. Kontrakulturala bihurtu da.

Eta zein motatako legeak beharko lirateke kontsumo mota honek kontrakultural izateari uzteko?

Komplexua eta maila askotarikoa da: lan banaketa egin, merkataritza lokala lagundu eta kanpoko kontsumo zigorren duten politikak eratu, birziklapena sustatu, hondakinak murriztu... Askok diru hartu beharreko erabakiak. Limiteak jartzearekin ere zerkusua du.

Zein motatako limiteak?

Hobeto bizitzeko gutxiago kontsumitzeak ez luke hautu pertsonala izan beharko, limite etiko bat baizik. Kontsumo hain altua izateak naturan edo aberastasunen banaketan arazoak dakartza. Beraz, kontsumo arduratsuz hitz egiten badugu, limite edo ahalegin bereziak egiteaz ere hitz egiten ari gara. Atez ateko hondakin bilketa sistemarena adibide ona da. Sistema honen aurka dauden pertsonentzako ahalegin handia suposatzen du, bai. Baina hondakin kudeaketan eta naturan onura asko ditu. Beraz, gauza ez da aukerazkoa izatea, gizarite moduan, guzti onerako aurre egin beharreko ahalegina izatea baizik.

**INFORMATIKO
FUTBOLARI
INJENERU
ARRAUNLARI
DANTZARI**

Tolosa
Munduko Baita proiektu
Elkartea informazio teknologien
Erabilera
Zerbitzuen
Zerbitzuen pertsonalizazioa

BAT

San Blas sarea 27 - 942 87 82 11 - kontakt@baita.org - www.baita.org

MUNDU mob
Eman hartu nahi duzun mundua

Maiatzak 11:
• **ALEGIA 12:00etan**

Maiatzak 19:
• **ADUNA 11:30ean** • **ANOETA 12:00etan**
• **ZIZURKIL 12:30ean**
• **AMASA-VILLABONA 13:30ean**

Maiatzak 4 ORENDAIN **DONOSTIA Ekainak 8**



'Uztartuz' lana taularatu duen dantzari gazteen taldea, Iñaki Agirre irakaslearekin. I. TERRADILLOS

'Dantzan hazi, kantuz bizi, euskaraz hezi' leloari jarraitzen dio 'Uztartuz' Ibarrako Alurr dantza taldearen ikuskizun berriak; euskara, dantza eta kantua uztartzen ditu, eta hilaren 18an aurkeztuko dute Lasarten.

Tradizioa bai, baina berrikuntza ere bai

Iñigo Terradillos Ibarra

Euskara, dantza eta kantua batzen ditu Ibarrako Alurr dantza taldearen ikuskizun berriak. Dantza eskolako gazteek taularatu duen lana oinarri tradizioaletik abiatuz izaera berritzaile ailegatzen da. Datorren larunbatean, hilaren 18an, aurkeztuko dute *Uztartuz* jendaurrean, Manuel Lekuona kultur etxean, 20:00etan.

Iñaki Agirre altsasuarrak bost urte daramatza batez beste 13-14 urte dituzten gazteez osaturiko taldearekin lanean. Ibarran eskolak emateaz gain, Altsasuko Musika Eskolako dantza irakaslea da. Ikasturte hasieran ekin zion ikuskizun berria prestatzeari. «Zerbait desberdina» adierazi nahi izan du, «bizi dugun egoera» kontuan hartuz. «Gurea dena, euskara eta ohiturak, alegia, bultzatzea izan da xedea, eta hori dantzaren eta kantuaren bitartez egitetik sortu zen ideia», azaldu du.

Uztartuz lanarekin, dantzaren



Alurr dantza eskolako dantzariak entsegu batean. I.I.

bitartez, tradizioa eta berrikuntzak ezagutu eta bizitzeko aukera eman nahi izan diete gaztetxoek. Eli Nosellas Alurr dantza taldeko arduradunak dioenez, «atzera begiratu, aurrera egitea posible eta beharrezkoa dela transmititu behar zaie gazteei». Tradizioari begira, beraz, baina berrikuntzari ere bai, eta uztarketa hori da, finean, ikuskizun berria nahiz Alurr bera definitzen duen ezaugarria.

Betiko dantzei pauso bereziak

Uztartuz dantza tradizionalek osatzen dute, «musika berritzaileekin eta pauso berriekin nahastuta». Hala, agurra, soletinoa, fandangoa edota arin-arina moduko ohiko dantzak daude, eta baita koreografiak ere. «Agurra bera betikoa da, baina, txalapartarekin eta pauso bereziekin; makilekin koreografia bat egin dugu, eta Ken Zazpi taldearen musikarekin garaikidea eta euskal pausoekin oinarrituriko beste koreografia bat», dio Nosellasek. Jantziei dagokienez, arropa tradizionalekin hasten da ikuskizuna eta pixkanaka arropa berritzaileekin bukatzen dute. Nabarmentzekoa da, gainera, gurasoek eginikoak direla jantzi gehienak.

Bestalde, ikuskizuna hiru zatitan banatuta dago. Eguzki Errondosororen ahotsak eta Jagoba Astiasaranen piano doinuek laguntzen dute emaldiaren jarraipena. Estreinaldia egin eta bere osotasunean ikusi arte ikuskizuna baloratzea «oso zaila» dela dio dantza taldeko arduradunak, baina, «maila handia» duen lana dela nabarmendu du, «batez ere, kontuan hartuta, gaztetxoak direla dantzariak».

Laugarren ikuskizuna

Alurr-en laugarren ikuskizuna da *Uztartuz*. 2008an *Sua* aurkeztu zuten, 2010ean *Oinazez* eta 2012an *Izanak dirau, 1512*. «Bakoitzak bere berezitasuna du, baina guztiak euskal dantzetan oinarriturikoak dira bide berritzaile hartu dutelarik», azaldu du Eli Nosellasek. Dantza talde batentzat bi urte bi urtera estreinaldi bat egitea ez dela erraza nabarmentzen du, baina, garai hauetan gero eta gehiago eskatzen direla horrelako lanak. «Gainera, gazteen artean ilusioa eta motibazioa mantentzeko ere beharrezko ikusten

Euskal jantzien erakusketa izango da ikusgai Ibarrako Kultur Etxean

Alurr dantza taldeak bere ikuskizunetarako erabiltako arropak ere egongo dira; Ramon Garziak eginikoak dira

I. Terradillos Ibarra

Euskal jantzien erakusketa jarriko dute Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean, bihurtik maiatzaren 24ra arte. Bertan, halaber, Alurr dantza taldeak bere azken hiru ikuskizunetarako, hau da, *Sua*, *Oinazez*, eta *Izanak dirau, 1512*-rako erabili dituen arropak ere izango dira ikusgai. Guztira 24 jantzi inguru dira, Ramon Garziak azken urteetan egin dituenak.

Alurretik azaldu dutenez, aspalditik zuten jantzien erakusketa egiteko asmoa: «Urte ugari daramatzagu Ramon Garziarekin lanean, eta urtero egiten dugun zozketan berak egindako jantziak jartzen ditugu sari moduan, beraz, herrian jantzi ugari daudenez, bildu eta erakusketa jarri dugun». Jantziak Alurr dantza taldearen ikuskizunetako argazkiekin lagunduta egongo dira, eta informazioa ere izango dute. Alurrek herritar guztiak animatu ditu erakusketa bisitatzerara joateko.



Erakusketako jantziak batzuk. I.I.



BIRZIKLAPEN BIRA

Nik birziklatzen dut.

Guztion artean, edertu dezagun Tolosaldea, hobetu dezagun mundua

GAUR LIZARTZA AMEZKETA

BIHAR ZIZURKIL

Maiatzak 11 TOLOSA Migoa

Maiatzak 13 ALBITZUR ABALTZISKETA

www.tolosaldea.org



Artisauen produktuak izango dira ikusgai, besteak beste, Hernialden. e.s.

Nekazal, Abeltzain eta Artisautza Azoka, Hernialden

Igandean egingo dute, 10:00etatik 14:00etara, pilotalekuan; aurten, berrikuntza moduan, hegaziak egingo dira

Iñigo Terradillos Hernialde

II. Nekazal, Abeltzain eta Artisautza Azoka hartuko du igandean Hernialdek. Udalak herritarrek batera antolatzen duen ekimena 10:00etan hasi eta 14:00ak bitarte egingo da zabalik.

Hernialdeko herritarren abereak eta produktuak, eta beraiek eginiko artisautza jarriko dute

erakusgai, pilotalekuan nahiz frontoiaren kanpoaldean. Nekazarien garaiko produktuak egingo dira eta artisauak eginiko margolanak, tailak, hosto metalizatuak edota saskiak. Abereei dagokienez, astoak, ahuntzak, ardiak, behiak, zaldiak edota behorak eramango dituzte baserritarrek. Aurten berrikuntza modura, hegaziak ere eramango dituzte, eta baserriko makinariaren erakusketa ere jarriko dute, Hernialde Lantegiaren eskutik.

Pasa den urtean egin zuten estreinakoz Hernialden gisa honek azoka eguna, eta izan zuen erantzun ona ikusita bigarrenegoz egingo dute aurten.

Andoni Goikoetxearen atxiloaldia luzatu du Frantziak

Gazteluarra epailearen aurretik igaro bitarte elkarretaratzeak eta batzar informatiboak egiten jarraituko dute

Asier Imaz Gaztelu

Andoni Goikoetxea gazteluarren atxiloaldia luzatzea erabaki du Frantziak. Herenegun goizean atxilotu zuten ETako kide izatea leporatuta, eta operazio berean beste bost pertsona atxilotu zituen Frantziako Poliziak. Operazioa baloratzerekoan, ETaren «nukleo logistikoa» desegin dutela nabarmendu du Espainiako Barne ministroak.

Correze departamentuan dagoen Brive-la-Gaillarde herrian atzeman zuten Goikoetxea, eta bertan izango dute Parisera epailearen aurrean deklaratzera eraman bitartean. Frantziako legediaren arabera gehienez 96 orduz luzatu daiteke atxiloaldia. Epea 120 orduetara luzatu dezakete, «arrisku terroristar» egon daitekeela ustez gero.

Elkarretaratzeak

Bestalde, Andoni Goikoetxea epaitgetik igaro bitarte Gaztelun elkarretaratzeak eta batzar informatiboak egiten jarraituko dutela azaldu dute. Herriko plazan izango dira, 20:00etan, *Gerra estrategia eten!* Andoni eta besteak askatu! Errepresorik ez! lelopean. Elkarretaratzea egin ostean «dagoen informazio apurra» zabalduko die bertaritzen direnei.

Herenegun iluntzean Andoni Goikoetxea gazteluarren atxiloteta salatzeko 100 lagunetik gora elkartu ziren Gaztelun. Bertan esan zutenaren arabera, epaiketa egunean Frantziara joango dira Goikoetxeari elkartasuna azaltzera. Herritarrak elkarretaratzera gonbidatu dituzte, eta baita epaiketara joatera ere.

San Isidro Eguna ospatzen hasiko dira asteburuan, Alkizan

Maiatzaren 15ean, berriz, San Isidro Egunez, afaria antolatu du udalak herriko baserritarrentzat

Mikel Iraola Alkiza

San Isidro Eguna dela eta, ospakizunetan murgilduko dira bihurtik hasita igandera bitarte, Alkizan. Biharko arratsaldeko bostetan hasiko dira ekintzak. Haurrentzako ginkana egingo da. Ondoren, zazpietan, giza ikurrina egingo dute plazan.

Aurtengo *Oilategitik* herri aldizkaria prestatzen ari dira, eta bertan jorratuko den gaietako bat bandera espainiarra herriko udalarekin jartzeko agindua dena, elizako kanpandorretik aldizkariaren azalerako argazkia egingo dute. Horretarako, kamiseta

txuri, gorri eta berdez jantzita joateko eskatu die herritarrei. Guztia ondo egin ahal izateko, ehun pertsona bildu nahi dituzte.

Larunbatean, berriz, mendi ibilaldia izango da 10:00etatik aurrera, eta parte hartzaileentzat hamaiketako egongo da doan. Arratsaldeko bostetan, VI. Frontenis Master Txapelketako finalak jokatuko dira pilotalekuan.

Igandean, meza nagusia egingo da hamarretan, eta 17:00etan, gurpil lasterketa hamabi urtetik beherakoentzat.

Bestalde, maiatzaren 15ean, asteazkenean, urtero lez, afaria antolatu du Alkizako Udalak baserri gisa ezagutuak diren etxeetan bizi diren alkizarrentzat. Gaueko bederatzietan egingo da Ostatu Jatetxean. Baserritarrentzat prezioa 15 eurokoa da, eta gainontzeentzat, 25 eurokoa. Izena emateko epea hilaren 12ra bitarte egingo da zabalik.

Hainbat jarduera egingo dituzte Aiztondoko erretirodunek, ekainean

M. Iraola

Aiztondoko erretirodunentzat hainbat ekintza antolatu ditu bai-larako Zerbitzuen Mankomunitateak ekainaren hasierarako.

Ekainaren 9an, 12:30ean, meza egingo da Alkizan. Ondoren, ordu batean, toka jokoa. 14:00etan, Alkizako jatetxean bazkaria egingo dute, iberiar urdaiazpikoa, friji-tuak, arrain zopa, legatza eta azpizuma dastatuz. Prezioa 27 eurokoa izango da. Ondoren, bingoan jokatu dute. Jarduera hauetan parte hartu nahi duenak, hilaren 31 baino lehen egin beharko du 943 69 39 30 zenbakira deituta.

Ekainaren 13an, berriz, San Antonio Eguna ospatzeko, Urkiolara egingo dute irteera. Goizeko zortziretan irtengo da autobusa Larrauldik. 08:15ean, Alkizan egingo du geldialdia. Ordu laurden geroago, Zizurkil Goiko herritarrak jasoko dituzte, eta ondoren, 08:45ean, adunarrak. Goiza bertan pasa ondoren, Azpeitian bazkalduko dute. Menuan, entsalada, urdaiazpikoa, arrain pudina, piper beteak, fruituak, txahalki biribila eta tarta izango dituzte. Bazkaldu ondoren, Oriara joango dira.

Irteeraren prezioa 23 eurokoa izango da, eta izena emateko epea ekainaren 4an amaituko da.

berriak
10 urte
zatoz gurekin
ospatzera

Maiatzak 17, Tolosa

Kontzertua **Anje Duhalde**
20:30ean • Leidor Aretoa

TXOKA hitza

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

Maiatzak 16 • Osteguna
20:15etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC FC Barcelona
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

Tolosaldea Goi-Mailako Lanbide Heziketa Institutuak 2013-2014 ikasturtean ere Hezibi proiektua martxan jarriko du; matrikula egiten duten hamabi ikaslek ikasketak egiteaz gain, lan mundua ere ezagutuko dute urtebeteko kontratuarekin.

Hezibi, ikasketak eta lana uztartuz

Tolosaldea Goi-Mailako Lanbide Heziketa Institutuak Hezibi proiektua martxan jarri du, aurtun. Eusko Jaurilaritzak bultzatutako Hezibi proiektuaren bitartez, ikasleek ikasketak eta lana batera uztartzen dituzte. Prestakuntza jasotzen duten bitartean, lanagatik soldata jasotzea bideratzen du proiektu honek.

Gorka Igartuak, institutuko zuzendariak, proiektuaren helburu nagusiak zehaztu ditu: «Gazteak lan mundura sartzea bultzatu, enpresen behar laboralei aurre egitea, eta ikasleek lortu behar dituzten gaitasun tekniko nahiz zeharkakoak ikastetxean eta enpresan garatzea».

Proiektua ikasturte honetan jarri dute martxan, eta datorren ikasturtean, hau da, 2013-2014an, ere jarraipena izango du. Tolosaldea Goi-Mailako Lanbide Heziketa Institutuan matrikulatzen diren ikasleek, ikasketak eta lan metodologia egiteko aukera izango dute.

«Proiektuaren balantzea oso positiboa eta garrantzitsua da enpresarentzat, eta baita ikasleentzat ere», argitu dute institututik. Era berean, «ikasleek ikasten jarraitzen duten une berean, lantegiko langileak izatera pasatzen dira, eta egoera honek ikaslearengan jarrera eta interes handiagoa eta hobe bilakatzen ditu», nabarmendu nahi izan dute.

Hainbat lanpostu galtzen ari diren une honetan, Tolosaldea Lanbide Heziketako Institutuak hamabi ikaslerentzako lan kontratuak lortu ditu, eta gutxienez urtebeteko kontratua izango dute.

Ikasleentzako abantailak

Hezibi proiektuak ikasleei abantailak eskaintzen dizkie Igartuaren esanetan: «Gutxienez urte batetik kontratu laborala izatea, eta



Hezibi proiektuarekin elektrizitate ikasketak egiten ari diren ikasleak. HITZA

behin betiko kontratua lortzeko aukera izatea ahalbideratzen du». Enpresaren errealitatea, hau da, funtzionamendua, lan praktikakoak, langileen arteko harremanak, lan baldintzak, segurtasun arauak, ... ezagutzen dituztela diote. Eta gainera, gaur egun enpresek eskatzen dituzten zeharkako gaitasunak, hala nola, talde lana, sormena eta berrikuntza, lantzen dituzte proiektuaren parte diren ikasleek.

Urtean, 1.200 ordu inguru egiten dituzte enpresan lanean, eta 500 ordu inguru ikastetxean bertan. Eta hileroko, ikasle horiek, lan hitzarmenaren arabera soldata jasotzen dute.

Baina abantailak ez dituzte ikasleek soilik jasotzen, enpresentzat ere abantailak ugariak dira. Besteak beste, behar teknologikoak garatzeko ikaslea prestatu dezakete. Bestalde, belaunaldien arteko txandatzeari gauzatu ahal izatea errazten diete: gizarte segurantzarako %100eko diru laguntza dute, eta tutorearen lana

ordaintzeko, berriz, 2.000 euroko diru laguntza jasotzen dute.

Aurtengo ikasturtean bederatzita lantegik hartuko dute parte eta denei esperientzia interesgarria iruditu zaiela argitu du Igartuak: «Illunki Elektrizitatea, Voith Paper, Astindu Elektrizitatea, Asuncion Klinika, Cadinox, Mecanizados Harri, Talleres Gara, Sobres Izalbe eta Gaztelu Iturgintza dira gurekin elkarlanean ari direnak».

Asuncion Klinikako arduraduna den Migel Izagirrek dioenez,

↓ **Ikasleak**

12

■ **Hezibi.** Tolosaldea Lanbide Heziketako 12 ikasle Hezibi proiektuan parte hartzen ari dira. Ikasturte berrian ere, beste hamabi ikaslek aukera hori izango dute.

«guretzat ikasleak, bertako lan errealek eginez nola moldatzen diren ikustea oso garrantzitsua da. Beraientzat esperientzia berria da, eta gero enpresan langile berriak hartzerakoan aukeraketa egoki bat egin dezakegu».

Illunki Elektrizitatea enpresako kudeatzailea den Jose Luis Artolaren iritziz, «aurrez ikastetxe horretako elektrizitate espezialitateko ikasleak praktikak egiten aritu dira enpresa honetan, eta orokorrean teknikoki oso ondo prestatuak etortzen dira. Beraz, ikastetxeko arduradunek proiektua azaldu zidatenean, oso interesgarria zela iruditu zitzaidan, enpresaren etorkizunari begiratu». Artolak gaineratu duenez, «oso garrantzitsua da niretzat kontratatu ditudan hiru ikasle hauek 1.200 ordutan gure enpresan trebatzea. Garatzen ditugun teknologia eta teknikan, langile kualifikatuak izan ditzagun, eta nazioarteko proiektuetan parte hartzen jarraitzeko».

Enpresen merkatua mundu

guztira zabaldua dago, eta gaitasun teknikoaz gain hizkuntza gaitasunak izatea oso garrantzitsua dela nabarmendu dute.

Ikasleei jarraipena

Lantegiko tutoreak eta ikastetxeko tutoreak elkarlanean ariko dira. «Ekimen guztiak ondo bideratzeko, koordinatzaile kargua dugu ikastetxean, gure kasuan Joxe Mari Elola da eta honen balorazioa ere proiektuaren inguruan baikorra da», adierazi du Igartuak.

«Parte hartzen dugun guztiontzat oso interesgarria eta garrantzitsua da. Enpresarentzat, ikasle hauek formatu ditzaketelako, eta behar dituen gaitasunetan edo enpresaren etorkizuneko proiektura bideratuz, lanpostu baten erreleboa erraztu dezaketelako», gaineratu du.

Ikasleek gaur egungo enpresa munduaren errealitatea ezagutu dute. Ikastetxeak, aldi, enpresekin harremanak sendotzen ditu. Gaur egun enpresa berri-tzaileak merkatu globalean lehiatzeko behar dituzten gaitasun tekniko eta zeharkakoak berri izanez, ikasketak bideratzen lagunduko dielako horrela prestatzen dituen ikasleen kontratazioa lan munduan erraztuz.

Tolosaldea Santa Lutzia auzoan kokatua dagoen ikastetxeak lantegi eta erakunde askorekin du harremana, eta beraien eskaintzak eta zerbitzuak hobeto ezagutu eta elkarri laguntzeko prest daudela adierazi dute. Informazio gehiago jasotzeko 943 65 11 47 telefono zenbakira deitu daiteke edo www.tolosaldea.com webgunean sartuz jaso daiteke.

Ate irekien jardunaldiak ere egin dituzte ikasleek beraien azpiegiturak ikus ditzaten. Aurre-matrikulazioa egiteko aukera, berriz, maiatzaren 27tik aurrera zabalduko dute.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amezketak / Lizartza.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen *Birziklapen bira* Amezketan eta Lizartzan izango da. Herriarrik birziklatzearen garrantziaz jabetzeko informazioa banatuko diete, eta baita gaiarekin lotura duten produktuak ere.

■ **Berastegi.** San Isidro eguneko bazkarira joan nahi duenak izena eman behar du, eta gaur bukatzen da epea. Gaztainondo elkartearen eman behar da, eta 25 euro ordaindu beharko da. Egun osoko festa izango da.

■ **Ikaztegieta.** Arin-arin eta fandangoko ikastaroan izena emateko aukera dago. Hurrengo astean hasi eta sanjoan bitartean izango da, asteartetan 19:45etik 20:45era. Izena emateko azken eguna hilak 10 izango da, 943 65 33 29 udal txeko telefono zenbakira deituz.

■ **Tolosa. Birziklapena bai, atez atekorik ezlelopean,** Tolosa Txukun plataformak hitzaldi informatibo eta parte hartzailea emango du Patxi Amantegiren eskutik. 20:00etan, Topic zentroan izango da.

■ **Zizurkil.** Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute udalak eta Txepetxa gazte asanbladak. Izena udal bulegoetan edo Atxulondo, Iriarte eta Egari ta-bernetan eman beharko da, eta 10 euro momentuan ordaindu beharko dira.

■ **Musika.** Loatzo Musika eskolaren matrikula egiteko epea zabalik du. 4, 5, 6 eta 7 urteko ikasleek izena eman dezakete. Alegia, Villabona, Zizurkil, Ibarra, Altzo, Irura edo Anoetako musika eskoletan egin ahal izango da. Era berean, saxofonia ikasi nahi dutenek ere izena eman ahal dute, eta ikastaro horretan mankomunitatetik kanpoko ikasleak onartuak izango dira.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



Pasa den ostiralean izan zen 7. Poltsikoko Lehiaketako lehen kanporaketa, Asvinenean. Parte hartu zutenetako bi talde dira. HITZA



Sei antzezlan lehiatuko dira, bihar

Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren kanporaketa izango da, 22:00etan, Adunako Asvinenean

Erredakzioa Aduna

Asvinenea Arte Eszenikoaren Laborategiak pasa den ostiralean eman zion hasiera 7. Poltsikoko

Lehiaketari. Bihar, 22:00etan, bigarren kanporaketa jokatuko dute, eta sei antzezlan taularatuko dira. Karmakros taldeak *El poste* eskainiko du; Teatro que Madura taldeak *Nunca se sabe*; No me claves tus puñalesek *Tar-des de patio*; Panico escenico taldearen *Gay Hitler! La historia contada con pluma*; Urban13 taldearen *Se acaba todo muñeca* eta Amildegia antzerki taldearen *Paz, no está con nosotros*.

Kanporaketa guztietan bezala, artista gonbidatuak izango dira: La cigarra y el grillo, bibolin eta kitarra bikotea, eta Kounu Kounu taldeak dantza garaikidea eskainiko du. Ateak 21:30ean irekiko dituzte, eta sarrera bost euro ordaindu beharko da.

Bi talde aurrera

Lehen kanporaketan lau antzezlan izan ziren lehiatu zirenak, eta bik lortu dute finalera sailkatzea.

Talde bat epaimahaiak aukeratu izan zen, eta bestea, berriz, publikoak. Slowww taldearen *Puzzle* izan da bata, eta bigarren sailkatua Anigusanoren *A pan y agua* antzezlan.

Asvineneak eskerrak eman dizkie pasa den astean Adunan izan ziren guztiei, bai joan zirenei, eta baita antolakuntza taldekoei ere. Eta hurrengo kanporaketetara joatera animatu ditu antzerki-zaleak.

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

2 orduko paseoa zaldiz Mirandaolan zehar

Ormazarreta zalditegia
Mantxola auzoa 10
Igazpi 20230 - Gipuzkoa
Tel.: 616-26 76 85
marianlana@yahoo.es

18€

www.mauka.eu **berria** taldea

MUNDU ZABALERAKO ZUBIA

ORIXETOLOSA

Batxilergoak
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak

Irakasgaien Eskaintza Zabalena

943 65 13 87
E-mail: OI@OIXA@berriak.com www.orixabi.berriak.com

Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 4ra

Mauka berria

sarrera + tragoa 12€

200 sarrera bakarrik

Zuloak Matxura Zigor DZ-k DJ

FERMIN MUGURUZA KONTRAKANTXA

Maiatzaren 11n 20:30etik aurrera Zarauzko Aritzatalde aretoan

Uda Berri FEST

AZKEN EGUNA
mauka.eu atarian